

IPUIA

## IDELEKURA-BIDEAN

Irakurleoi, orain edestuko dautzudan yazopen bafegafi au oraindik oraintsu yazoa da; yazoa, ez neronek asmaua. Bizkaiko uritxo baten, Araba-alderantza dagon uritxo baten yazo zan.

Kepa Kiften eta Julen Gaztanburu anaiak euren antzeko aitearen semeak, bein, uda-goyeneko goizalde zoragafi-amesko baten, sega bana bizkañean artuta ondo aro ta txitxari yoyazan aldatzatoro mendirantza, Akeñmendi'ko euren idelekurantza. Biotza nasai eroien, eta Kiften'ek nozipein bere txistu zoliagaz menditxori abeslariari erantzuten eutsen, aldapa leizia-gora yoianaren.

Alako baten, baña; ustekabe ta otoz-otoan gure mutilok bideertzeko idetzan urumea ta zapañada ikerakoña asmatzen dabe, eta begiak alborantza itzuliaz bat: «¡Basaurdea, basaurdea!» dida dagi Gaztanburu'k, eta itzok erdi-oguzirik itxita bere beso-biak betean sega zofotza, aurfeko iluntzan ide-ebateko zofotz-zofotz egindako segea, basaurde erukariari sabela-zeñ sartu eutson, eta esteak dingilizka ebazala itxi eban. Kiften'ek be, anaiea baño gitxiago etzala-ta, basaurdeari belar-ondoan segakada ikeragafia emon eutson eta belafia, azkorakadeagaz sezpala lez lufera yausi zan sartadeagaz bat.

Zartadok emonda gure anaiok artzen dabe basaurdea aurfen eta etxerantza bultzatzen dabe, lagunak ekarreko txistu zofotz-lariak eta eupadak eginda. Mutilok aro-be aro doaz etxerantza, ustebako eiza, alako eiza, ta ain goizetik daroelako. Ganera euren biotzak are geyago poztu ta nasaitzeko euren egifen aunetatik

etofiko yaken entzute ta ospea datofkez gogora. «Egundo eztok entzun onangorik, inok segeagaz onango basaufderik il daunik».—eragoion Kiften'ek, eta txistu-egiten eban lagun eske, basaufdeak bere bidea-zeaf yoan-gura gorria ageftu eban-da.


Udagoyenean ezezago da basetxetafak etxean baño basoan aufkitzea; au dala-ta gure basaufdedunoi lastef egin yaken bidean aufez Kosma Lupu, gizon luzanga-beda-f-zufa, ta onek zekusana-gaz zerbaist gelduta: «¿Zef dakazue, mutilek?»—itandu eutsen; aik, baña, pozafen-be-pozafen eta Lupu'ri bere itauna amaitzeko astirik emon barik: «Efi-ganadue (1) ba'kagu»—erantzun eutsoen. Au entzun ebanean Lupu'k, bañeari eusteko ezpanai usegita, sufa gazi-gazi eginda: «Ori txafie dok ba-ta; basaufdek baltzak izaten dozak»—esan eutsen gure eiztari zoriontsuoi. Gure anaiok, baña, euren biotzetan ezpaiaren gili-gilia asmaufafen, ofaitio ebazpen andiagaz iařdetsi (erantzun) eutsoen Lupu'ri: «Txafia be zuriak eta baltzak izaten diran lez, basaufdek be olangoak izango dira». Autu aunegaz gure basaufdedunen pozaren efdia gitxienez eřekara yoan zan, susmo txafia ta arantza minbera sařtu yaken biotzean eta alkafi esaten be asi ziran: «Gero txafiek izan beaf layeukik onek»....

Susmo txafak geroago ta indaf geyago ařtu eban euren biotzean, eta, bildufez beterik, auřean oyoka ta txistuka eroien eiz nagusia beřtan-bera-itxi eben, olan egin ebena inok ezabalakoan yakingo-edo, ta ostera be Akeřmendi'ko idelekura-bidea ařtu eben, itun, baña, ta ixilik. Basaufdea, baña, etzan basaufdea, Goienetxe-basetxeko txafia baño, ta ařtu ebazan zaurietatik odolustu-ta, etxeraño eltzeko indaf barik, basoan galdu zan eta usaintzen asi zanean Gořbai'eko sai sama-biluz-gosetia iruntsi eben.

## LAŘAKOETXEA'TAŘ B.



(1) Kiften eta Gaztanburu'en urian «efi-ganadue» inorena eztan aberari deritxo.



# EUSKAL ESNALEA



1927

JORAIĀ

280'g zenbakia